

BLOGAREN SARRERAK 1

Gazte eguna



Gure herriko festetan, lehen, gazteok lokaletan geratzen ginen, eta gauera arte ez ginen herrira ateratzen. Egoera horri buelta emateko, Gazte Eguna antolatzen hasi ginen elkarlanean, gazteok elkar ezagutzeko eta gure arteko harremanak egiten hasteko.

Denetarik antolatzen dugu, bazkaria, kontzertuak... eta askotan momentuan bertan sortzen diren jolasak ere egiten ditugu, kuadrillak elkarren artean nahastuta. Horrela, elkar ezagutu eta elkarrekin ditugun harremanak sendotu ditugu. Oso egun ederra izaten da gazteontzat.

1. Zertarako hasi ziren gazte eguna antolatzen?
2. Zer ekintza antolatzen dute?
3. Zer lortu dute ekintza horiekin?